

Palestinarren ustez Israelek bere egutegia inposatu nahi du

WASHINGTON

Washingtonen, bigarren faseko bilerak direla eta bildu diren ordezkari arabiarrek eta, batez ere, palestinarra ez daude prest Israelek elkarriketak egiteko proposatu duen egutegia onartzeko. Ordezkaritza palestinarrek Estatu Batuetako Gobernuari bilerak hasteko eguna erabaki dezan eskatu dion bitartean, israeldarrek negoziaketak egiteko egunak hautatzeko eskubiderik ez dutela azaldu zuten. Israeldarrek abenduaren bederatzian bildu nahi zuten ordezkari jordanar-palestinarrarekin. Egun horretan Intifadaren laugarren urtemuga betetzen da eta palestinarrek «egun deegokia» dela jakinarazi dute.

Ordezkaritza israelarra bihar helduko da Estatu Batuetako hiriburura. Arabiarrek jadanik bi egun eman dituzte Washingtonen israelarren zain. Arabiarrek esan zuten, EEBB eta SESBek Israelek bilerak sabotea ez ditzan, ahal duten esfortzu guztiak egin beharrean daude. «Nazioarteko komunitateak bere betebeharrak ahazten baditu, israeldarrek nahi dutena egingo dute», esan zuten

Hanan Ashrawi ordezkari palestinarreko bozeramaleak.

Margaret Tutwiler EEBBetako Estatu Departamentuko bozeramaleak esan zuenez, bileraren antolatzaileak ahalgin guztiak egiten ari dira arabiarrek eta israeldarrek mahai berean hitzegitera eser daitezela. «Alde biak bilerari berri bat egiteko ados jarri daitezela lan egiten ari gara», esan zuen Tutwilerrek.

ISRAEL EN BALDINTZA BERRIAK

Israeldarrek Washingtonera heldu aurretik zailtasun berriak jartzen hasi dira. Tel Aviv-eko Gobernuak, Eliakim Rubinstein Gobernuak idazkariaren bidez, Saeb Erakat ordezkari palestinarrean jarraitzen badu, ez direla hitzegitera azalduko mehatu egin zuen. Erakatek CNN telebista kate estatubatuarrean esan zuenez, Palestinaren Askapenerako Erakundea izan zen bera ordezkari palestinarrean sartzeko erabakia hartu zuena. Era berean, israeldarrek gogor protestatu dute Gobernu estatubatuarren aurrean, Hanaia eta Tiasir Aruri deportatu palestinarrei bisadoak eskaini dizkietelako.



Maastricht: Europa batasun politikoaren aurrean

Alemaniak Europaren eraikuntzan egitura federala proposatuko du

Berlinek bere diruarekin batasun politikoa finantzatzeko asmoa du


Alemanien inguruan beti egon dira azken berrogeitahamar urteetan zalantzak eta beldurrak. Orain, ordea, alemaniarrek beren hegemonia ez dute zabaltzeko nahi, Europa eraiki nahi dute. Beraiek ere beldur dira etorkizunaz, batez ere modu ekonomikoan eta politikoan bateratutako Europa ez bada gauzatzen. Beldur dira, zeren, Europaren eraikuntza lur jota geratzen bada alemaniarrek Alemanien garapenaz baina ez dira kezkatuko.

BERLIN

Azken 200 urteetan gertatu den bezala nazionalismo alemaniarra edozein momentuan esna daiteke berriro, batez ere Europaren eraikuntzak ez badu alemaniarrengan inolako ilusiorik eragiten. Hau dela eta, Helmut Kohl kantzilerrak Europaren batasun ekonomikoa, eta batez ere, politikoa bultzatu nahi du. Kohlek Maastrichteko gailurra Europaren eraikuntzarako erabakiorra izan zitekeela uste bazuen ere, hamabi partaideak beste gailur bateko oinarriko puntuak eztabaidatzera mugatuko direla konturatu da. Kohlek alde batera utzi beharko du Europako Estatu Batuen ametsa; Maastrichten atzerapausuak galeratzeko neurriak lortzen baditu, kantzilerra gustora gera daiteke.

BERLINETIK EGINDAKO PROPOSAMENA

Alemaniak, Europa bateratua eraikitzeko sakrifizio ugari egiteko prest dagoela behin eta berriro azaldu du. Alemania Europaren barnean potentzia ekonomiko modura begiratua izan da. Europaren batasuna lortzeko diru alemaniarra behar beharrezkoa zen. Politikari zegokionean, ordea, alemaniarrek beti alde batera geratzen ziren. Eta Alemania nekatu da dirua jarri eta sakrifizio horren truke ezer ez lortzeaz. Alemaniarrek ez daude prest batasun ekonomikoa aurrera



Helmut Kohl da estatu eta gobernuburu europarretarik «europeistena».

eramateko, batasun politikoa bazterrean uzten bada.

Berlinek garbi utzi du bera prest dagoela batasun ekonomikoak nazio aberatsei exigitzen dien esfortzuak egiteko. Espainia edo Irlandak EKO egiturazko fondoak zabaltzeko egin duten proposamena alemaniarrek onartu egingo lukete. Baina, argi dago esfortzu horren truke alemaniarren batasun politikoaren hitzarmena sinatuta ikusi nahi dutela.


BATASUN POLITIKOA NAHITAEZKOA

Alemaniak bere moneta eta bere banku zentrala erakunde komunitarioen esku uzteko prest dago. Egun Alemaniako moneta nazio honek eman dezakeen ondasun baliotsuena da eta bere ekonomia Europaren esku geratuko da osorik. Horren truke Alemaniarrek erregioen Europa osatu nahi dute, Europa Alemaniaren egitura bera kopiatuz eraiki. Europako Komisioa, botere exekutibo europarra, Brusseleko Le-



LMARTIARENA

gebiltzarrak hautatu beharko luke eta banku zentral eta independente bakarra osatuko litzateke Europarako. Legelbiltzar europarrari botere gehiago eman eta NATO erabat baztertu gabe, Europako defentsa sistema indartu behar dela ere uste dute.



GAUR betetzen da Pearl Harbor-eko bonbardaketaren 50. urtemuga. 1941. urteko abenduaren 7an Isoroku Yamamoto almirante ospetsuak inoiz Estatu Batuetako base batek izan duen eraso gogorrena burutu zuen. Yamamotok zuzendutako flotak Arizona, Maryland, Oklahoma, Utah eta California akorazatuak hondoratu zituen Hawaii irletako basean. Guztira 2.434 estatubatuar hil ziren eta Franklin Delano Rooseveltek, garai hartan EEBBetako lehendakariak, Inperio japoniarri berehala gerra deklaratzeari erabaki zuen. George Bush, gaur egungo lehendakariak abenduaren zazpia egun nazionala duela gutxi deklaratu du Pearl Harborren hildakoen omenez.

IGOAKO KONTZEJUA (NAFARROA)

ESKOLA IZANDAKO ERAIKINAREN SALMENTA

Kontzeju honek, enkante publikoan eta plegu itxiaren bidez, lehen solairuan etxebizitza duen ESKOLA salgai jarri du. Enkantearen irteera-prezioa BOST MILIOITAKOA DA.

Proposamenak, kartazal itxian, abenduaren 13ko 13.00 orduak baino lehen aurkeztu beharko dira Kontzeju honetan bertan; barnean, proposamenarekin batera, enkantearen irteera-prezioaren %2a ordaindu izanaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

Proposamenen irekiera abenduaren 14ko 12.00 orduetan egingo da. Baldintza plegua Kontzejuko Idazkaritzan dago interesatuen esku. Tfna.: (948) 50.30.42.

Igoa, 1991ko abenduaren 5ean. ALKATEA



RENAULT
BIZITZEKO
PLAZERRA

ALBERDI KOMERTZIALA. S. A.

Armentia GASTEIZ

Tfnoa.: 130 300 (945)